

‘Bideak’ eskuliburua (Euskal Herrian Euskaraz)

HITZAURREA

Hizkuntza eskubideak. Euskal herritar garenok zein hizkuntza eskubide dagozkigu? Nola bihurtu errealitate eskubideok eguneroko bizitzan? Galdera hauek eta gehiago egin dizkiogu sarri gure buruari. Erantzunaren bila, tartean egun espainiar eta frantziar legediek aitortu edo ukatzen dizkiguten eskubideak daude eta saltsa ederra sortzen zaigu.

Esku artean duzun liburuxkak, euskal herritarroei, berez, naturalki eta nazioarteko hainbat adierazpenetan aitortzen zaizkigun eskubideak ezagutarazi nahi ditu eta era berean hauek defendatu ahal izateko ideiak, proposamenak eta bideak erakutsi. Azkenik, idazlan honek egunerokotasunean tresna erabilgarria izan nahi du, erreferentzia bat, gure hizkuntzan aritu ahal izateko baliabide bat. Beraz, erabil ezazu!

EUSKARAREN EGOERAZ

Historian zehar jasandako zapalkuntzaren ondorioz gure hizkuntza egoera gutxituan dago. Jendartearen hiru laurdenak ez du ezagutzen eta beraz, ezin mintzatu ez hauek ez eta euskaldunak ere hauekin. Euskararen patua gehiengoaren borondate librearen omen delakoaren menpe jarri dute. Denbora, ordea, aurrera doa eta gure kontrako faktore indartsu bihurtu da.

Normalkuntzaren bidean aurrera egiten dugunaren sentsazioak batzuen gogoan asebetetzen badu ere, egin diren urratsak ukatu gabe, berreuskalduntzeak oraindik dagokionaren azpitik jarraitzen duela uste dugunok dagoena mantentzetik harago joan behar dugula aldarrikatzen dugu. Euskararen normalkuntza prozesua indar geldiezin izan dadin, euskaltzaleok geure indarrak biderkatu behar ditugu, erdietsitakoaren gibelean mugarri atzeraezinak ezarriz eta jomuga berriak zehaztuz.

Espainiar eta frantziarrek, euskarak bere herriarekin duen lotura haustezina ezkutatu nahi dute eta bide batez, bien desagerpenerako bidea egiten ari dira, esku artean dituzten tresna guztiak erabiliz eta hizkuntza baten eraikuntzan zutabe direnak kolpatuz. Lege, polizia,

epaile, dekretu eta hedabideen bidez helduen euskalduntzea, euskarazko hedabideak, haurren euskarazko irakaskuntza edota udalerrri euskaldunak kriminalizatu eta zigortzen ari dira.

Baina funtsean, euskararen estatusa da egungo egoeraren korapilo nagusiena. Hizkuntza komunitate bakarra gara, baina gure lurraldea zatitua delarik, zatitua gaude gu ere, gure hizkuntza dagoen bezalaxe, hizkuntza eskubide kolektibo eta indibidual berberak dagozkigula ahantzarazi asmoz edo. Batzuek egitura honetan asko aurreratu dugula esango dute. Zenbat? Duela hogeitun urte euskara ezagutzen genuenon kopurua eta egungoa paretsua da. Horra hor datu esanguratsu bat. Eta haur guztiek eskolatan euskara ikastea derrigorrezkoa ez den artean, hogeitun urte barru datu hori ez da asko mugituko.

Herriko etxean, poliziekin, enpresetan, dendan, epaitegian, haurren jaiotza erregistratzeko unean, osasun etxean, hedabideak ikusi, entzun edo irakurtzean, politikarien artean, lagunen artean, unibertsitatean... Zein da euskararen funtzioa egungo jendartearen? Bigarren mailakoa kasurik onenean eta hori ere ez zenbaitetan. Frantsesa eta espainiera dira jendartearen hizkuntza nagusi eta euskara baztertua da oro har.

EUSKARAK LEGE BERRIA BEHAR DU

Egungo egoera iraultzeko normalkuntza prozesuak eskatzen dituen zutabe guztiak eraiki eta zutitu behar direla jakinik, ezinbestekoa da lege berri baten eraikuntzari ekitea. Euskara Euskal Herriko Nazio Hizkuntza gisa onartuko duen legea, alegia. Euskara berezko hizkuntza eta Euskal Herri osoan ofiziala izatea ekarriko duena. Lurralde osoa bilduko duen ofizialtasuna eta jendartearen funtzio guztietan euskaraz bizitzea ahalbideratuko duena. Bigarren mailako herritar izateari amaiera emango dion estatusa. Onar dakion Euskal Herrian euskarari edozein herriri onartu beharreko estatus bera. Herrien eta hizkuntzen arteko berdintasunezko tratamendua dugu aldarrikatzen.

Euskararen berreskurapen osoa ahalbidetu behar da halabeharrez. Mendeetan gure hizkuntzari ukatu zaiona eskuratzeko eta kolonizazio linguistikoaren bidez desegin digutena eraikitzen lagunduko duen legedia hain zuzen ere: etorkizuneko belaunaldi guztiak euskaldun izan daitezen; euskaldun ez direnak

euskalduntzeko; funtzio sozial guztietan hizkuntzak dituen gabeziak gainditzeko; euskarazko esparru komunikatibo bat eraikitzeko... Hitz batean, euskara berreskuratzeke ezinbesteko oinarria jartzea dugu erronkatzat.

Gaurdanik Euskal Herria euskalduna eraiki dezagun. Euskaraz biziko den herri bat amets baino errealitate bilaka dezagun, guztion lanaz eta guztion borroka. Horixe da bidea!

EUSKAL HERRITARRON HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Jarraian euskal herritarroi dagozkigun hizkuntza eskubideak ikusiko ditugu. Hauek Hizkuntzen Deklarazio Unibertsalak eta Udalbiltzak kaleraturiko Euskal Herriaren Eskubideen Kartan dituzte oinarri nagusizat. Era berean egungo legediak aitortu edo ukatzen digunaren laburpena izango duzu, zein oztoporekin topa gaitzkeen kontuan izateko.

**>> EUSKAL HERRITARROK ESKUBIDEA DUGU
EUSKARA OFIZIAL, HIZKUNTZA NAZIONAL ETA
LEHENTASUNEZKO IZENDATUA IZAN DADIN
EUSKAL HERRIKO LURRALDE OSOAN.**

zer egin?

- ✓ Ofizialtasuna aldarrikatu eta honen aldeko ekimenetan parte hartu.
- ✓ Ofizialtasuna Euskal Herri osoan lortzea euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko urrats handia da, beraz hizkuntza eskubideen defentsaren aldarrikapen nagusia izatea beharrezkoa da.

**>> ESKUBIDEA DUGU EUSKAL HERRIAN
HIZKUNTZA POLITIKA BAKARRA FINKATU
DADIN EUSKARA BABESTEKO, BERE
JARRAIPENA ERE AGINTE BAKARRAREN**

ESKU UTZIZ, ZATIKETA ADMINISTRATIBO ETA POLITIKOEN GAINETIK.

zer egin?

- ✓ Arduradun politikoei hizkuntz eskubideen bermean oinarritu hizkuntza politika egitea exijitu, egunerokotasunean exijentzia hau ugalduz, hauteskunde garaian ere bereziki kontutan hartu behar dugularik.

>> ESKUBIDEA DUGU ALOR PUBLIKOKO JARDUERA GUZTIAK EUSKARAZ EGITEKO.

zer egin?

- ✓ Guk antolatu edo parte hartzen dugun jarduera guztiak euskaraz izateko eskubidea dugunez, hau honela izan dadin ahalegina egin.
- ✓ Euskaraz diren jarduerak bultzatu eta horietan parte hartu.
- ✓ Edozein jardueratan euskara baztertua edo bigarren mailan uzten bada salaketa egin. Horretarako jarduera horren antolatzaileei zure kexa adierazi diezaiekezu, bai idatziz edo baita ahoz ere.

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKARAZ IDATZITAKO EDOZEIN DOKUMENTU PRIBATU ZEIN PUBLIKO BALIOZKOA ETA ERAGINKORRA IZAN DADIN.

zer egin?

- ✓ Gure idazki guztiak euskaraz idatz ditzagun, dena delakoak direla ere.

- ✓ Idazkiak onartuak ez badira, zure kexa adieraz ezazu. Bai idazkia zuzendu duzun lekuan, bai zure inguruan eta baita euskararen defentsan diharduten elkarteetan ere.

>> ESKUBIDEA DUGU ALOR PERTSONALEAN ETA FAMILIARTEKOAN EUSKARA ERABILTZeko.

zer egin?

- ✓ Gure ingurunean, lagunartean, jaietan edota familian, euskaraz mintzatu.
- ✓ Euskaraz mintzatu. Sarri bada euskaraz ez dakienik eta denok erdarara jo beharrean egoten gara. Euskarari eutsi, ez etsi. Jarrera horrek ez dakienari errespetua galdu gabe, zer pentsatua emango dio eta.
- ✓ Euskaraz dakitenei eta egiten ez dutenei euskaraz hitz egin dezaten eragin eta ez dakitenei euskaltegian euskara ikastera animatu. Horretarako euskaltegiak sortzen duen material dibulгатiboa bere eskura jarri.

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKAL SISTEMA ONOMASTIKOA ERABILTZeko.

zer egin?

- ✓ Zure seme edo alabari euskarazko izena jartzea ukatzen badizute sala ezazu, bai epaitegian edota beste tresnen bidez. Esate baterako prentsan gutunak idatziz.
- ✓ Era berean zure ingurunean babesa bilatzea komenigarria da. Horrela zure kexa herritarrek edo beste eragileek babestua egongo da, ukatu dizunari zailtasun gehiago jarritz.

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKAL HERRIKO TOKI-IZENAK EUSKARAZ ERABILTZeko,

AHOZ ETA IDATZIZ, ESPARRU PRIBATU, PUBLIKO ZEIN OFIZIALETAN.

zer egin?

- ✓ Euskarazko toki-izenak erabili, ahoz eta idatziz.
- ✓ Gure herrien berezko izenak errespetatuak izan daitezen eragin. Adibidez, Baiona beharrea Bayonne, Iruñea beharrea Pamplona edo Barakaldo beharrea Baracaldo agertzen dela ikusten baduzu, horrela idatzi duenari zure kexa adierazi iezaiozu.
- ✓ Bide seinaleetan horrelakorik ikusten baduzu, aldatua izan dadin eragin ezazu. Bai erdarazkoa ezabatuz edo euskaratuz.

**>> ESKUBIDEA DUGU EUSKARA
EZAGUTZEKO. EUSKARA EZAGUTZEN EZ
DUTEN EUSKAL HERRITARREK ESKUBIDEA
DUTE EUSKARA IKASTEKO ETA
HORRETARAKO LAGUNTZA JASOTZEKO,
AHAL IZANEZ GERO EUSKALDUNTZEA
DOHAINIK IZAN DADIN.**

zer egin?

- ✓ Eskubide honen aldarrikapena egitea ezinbestekoa da, euskara gure hizkuntza den heinean ukaezina den eskubidea baita.
- ✓ Biztanleetatik lautik hiruk ez du euskara ezagutzen. Euskaraz ez dakienari euskalduntzera animatu, Helduen Euskalduntze eta Alfabetatze sarearen bitartez. Jendea motibatu, lagun artean, lantegian... egunerokoan.
- ✓ Euskalduntze hau doakoa izan behar dela adierazi. Administrazioari laguntzak eskatu eta doakotasuna aldarrikatu.
- ✓ Euskaltegiek matrikulazio kanpainak egiten dituztenean laguntza eman. Kanpainako lanetan parte hartu.

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKARAREN ERABILERA EKINTZA POSITIBOEN BIDEZ SUSTATU DADIN.

zer egin?

- ✓ Erabilera bultzatzeko euskalgintzak (euskara elkarteek, euskaltegiek, ikastolek...) antolatzen dituen ekintzetan parte hartu eta behar bada antolaketan lagundu.
- ✓ Euskararen erabilera sustatzeko ekintzak eskatu. Adibidez, herri edo auzoetako jai batzordeei egitarauaren ekintzak euskaraz izan daitezen eraginez eta kultur etxeak edo herriko etxeek bultzatzen dituzten ekintzetan euskara bultza dadin eskatuz.
- ✓ Horrela ez bada, hau da euskararen erabilera sustatzen ez bada, ahal duzun neurrian sala ezazu. Esate baterako: herriko jaietan haur antzerkia erdarazkoa bada, guraso batzuk bildu eta dagokion lekuan kexa aurkeztu.

>> ESKUBIDEA DUGU ESKUALDE ETA UDALERRI EUSKALDUNETAN LURRALDETASUN IRIZPIDEAREN ARABERAKO NEURRI BABESLEAK HAR DAITEZEN.

zer egin?

- ✓ Udalerri euskaldunek euskaraz bizitzeko duten eskubidea aldarrikatu. Eskubide hau praktikara eramateagatik behin eta berriz espainiar justiziaren aldetik jasaten ari diren pertsekuzioa salatu eta udalerri hauen babeserako ekimenetan parte hartu.
- ✓ Udalerri euskaldunetan bizi zaretenak euskaraz bizitzeko ahalegin kolektibo horretako partaide eta eragile bilakatu.

- ✓ Udalerriak UEMAn (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) parte hartzen badu UEMAk antolatu ekimenetan parte hartze aktiboa izan, bereziki UEMA egunean.
- ✓ Udalerria UEMAn ez badago eta bertan parte hartzeko baldintza betetzen badu (herritarren %80a euskalduna izatea) UEMAREN partaide izateko herritarrok ahalegina egin behar dugu, agintariei eskaera luzatuz.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI ETA ORGANO OFIZIALEI DAGOKIENEZ

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKAL HERRIKO AGINTE PUBLIKOEN AURREKO EDOZEIN JARDUKETA ADMINISTRATIBO, JUDIZIAL EDO POLIZIAL, AHOZKOA ZEIN IDATZIA, EUSKARAZ EGITEKO. AHOZKO JARDUKETEN KASUAN EUSKAL HERRITARROK ESKUBIDEA DUGU HARREMANA ITZULTZAILEAREN BITARTEKARITZARIK GABE IZAN DADIN.

zer egin?

- ✓ Edozein aginte publikorekin harremana egiterakoan euskaraz egin behar dugu. Gure eskubidea da. Aginte publikoaren ardura da idazkien itzulpena egitea eta ahozko harremanetan funtzionario euskalduna jartzea gurekiko harremana ziurtatzeko.
- ✓ Legeak eskubide hau onartzen digun tokietan erabat bete dadin jarrera zorrotza izan behar dugu, aginte publikoa gure zerbitzura dago eta gure eskubidea bermatu behar du. Euskaraz egiteko inolako ezezkorik, oztoporik edo atzerapenik jasotzen bada kexa adierazi behar dugu bai administrazio horretan bertan instantzia bat sartuz, bai Behatokian, bai horrela ikusiz gero bide judizialeatik.
- ✓ Legeak eskubide hau onartzen ez digun tokietan gure lehenengo ahalegina harremana euskaraz egitea izan behar da. Lehenengo hitza euskaraz. Kasu arraroren batetan

(funtzionarioa euskalduna delako eta borondatea duelako) harremana euskaraz izaten jarraitu ahal izango dugu, baina ohikoena aurkakoa gertatzea izango da: erdaraz erantzutea eta gu erdaraz egitera behartzea. Une horretan norberak baloratu beharko du, dauden baldintzen eta lortu nahi dugunaren arabera, zein jarrera hartu (euskaraz jarraitu ala erdarara pasa) baina dena delakoa ere garrantzitsua da jarrera hori salatzea, funtzionarioari bere burua euskaldundu behar duela exijitzea, dagokigun eskubideen aurka baitoa legeak onartu ala ez.

- ✓ Aurrekoarekin batera garrantzitsua da ere administrazioetan euskararen normalizazioa helburu duten normalkuntza planak aldarrikatu eta bultzatzea.

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKAL HERRIAN EKOIZTEN DEN DOKUMENTAZIO OFIZIAL, LEGE ETA GAINERAKO ARAU JURIDIKOAK EUSKARAZ IZATEKO.

zer egin?

- ✓ Administrazioko edozein dokumentazio edo idazki gure eskuetara iristen bada eta hau erdaraz baldin badago itzuli eta dokumentazio hori euskaraz jaso nahi dugula erantzunez idazki bat bidali administrazio igorleari jaso dugun dokumentazioarekin batera. Honekin batera ere kexua bideratu.
- ✓ Legeak eskubide hau onartzen digun tokietan ez genuke arazorik eduki behar eta gure eskakizunari erantzunez administrazioaren dokumentazioa euskaraz jasoko dugu. Hau gertatzen ez bada eta dokumentazioa gazteleraz jasotzen jarraitzen badugu atzera eskaera bidali eta salatu.
- ✓ Legeak eskubide hau onartzen ez digun tokietan ziurrenez administrazioaren erantzuna hasierako dokumentazioa berriz ere erdaraz bidaltzea izango da. Erantzun hau ere salatuko dugu. Eta une honetan norberak baloratu beharko du, dokumentazioaren izaeraren arabera eta lortu nahi dugunaren arabera.

- ✓ Zure inguruko jendeak jarrera hau har dezan ahalegina egin ezazu. Ahalik eta euskaltzale gehienen salaketarekin, arazo gehiago sortuko dizkiegu.

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKAL HERRIKO ERREGISTRO PUBLIKOETAKO IDAZPENAK, NOTARIOEK EDO FEDE PUBLIKOA DUTEN FUNTZIONARIOEK BAIMENDUTAKO DOKUMENTUEK EUSKARAZ IDATZI DAITEZEN.

zer egin?

- ✓ Honelako zerbitzuetara jotzen dugunean langile euskaldunak topatzen saiatu (notario euskalduna, funtzionario euskalduna...)
- ✓ Dokumentu hauek erdaraz jasotzen badituzu, euskaraz idatziak egon daitezen eskatu.

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKAL HERRIAN DAGOEN EDOZEIN ADMINISTRAZIOK HERRITARREKIKO GARATZEN DITUEN BESTE EDOZEIN HARREMAN EUSKARAZ IZATEKO.

zer egin?

- ✓ Edozein aginte publikorekin harremana egiterakoan euskaraz egin behar dugu. Gure eskubidea da. Aginte publikoaren ardura da idazkien itzulpena egitea eta ahozko harremanetan funtzionario euskalduna jartzea gurekiko harremana ziurtatzeko.
- ✓ Legeak eskubide hau onartzen digun tokietan erabat bete dadin jarrera zorrotza izan behar dugu, aginte publikoa gure zerbitzura dago eta gure eskubidea bermatu behar du. Euskaraz egiteko inolako ezezkorik, oztoporik edo atzerapenik jasotzen bada kexa adierazi behar dugu bai administrazio

horretan bertan instantzia bat sartuz, bai Behatokian, bai horrela ikusiz gero bide judizialek.

- ✓ Legeak eskubide hau onartzen ez digun tokietan gure lehenengo ahalegina harremana euskaraz egitea izan behar da. Lehenengo hitza euskaraz. Kasu arraroren batetan (funtzionarioa euskalduna delako eta borondatea duelako) harremana euskaraz izaten jarraitu ahal izango dugu, baina ohikoena aurkakoa gertatzea izango da: erdaraz erantzutea eta gu erdaraz egitera behartzea. Une horretan norberak baloratu beharko du, dauden baldintzen eta lortu nahi dugunaren arabera, zein jarrera hartu (euskaraz jarraitu ala erdarara pasa) baina dena delakoa ere garrantzitsua da jarrera hori salatzea, funtzionarioari bere burua euskaldundu behar duela exijitzea, dagokigun eskubideen aurka baitoa legeak onartu ala ez.
- ✓ Aurrekoarekin batera garrantzitsua da ere administrazioetan euskararen normalizazioa helburu duten normalkuntza planak aldarrikatu eta bultzatzea.

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKAL HERRIAN ORDEZKARI INSTITUZIONALEN BATZARRAK EUSKARAZ BURUTU AHAL IZATEKO.

zer egin?

- ✓ Edozein euskaldun (ordezkari instituzionala izan ala ez) batzar hauetan parte hartzen duenean euskaraz egin.
- ✓ Beste ordezkariak gazteleraz edo frantsesez egiten (euskaraz ez dakitenean) dutenean euskarara itzultzea eskatu eta euskara ikas dezaten gonbitea luzatu.
- ✓ Bietako ekimenen bat debekatua edo ukatua baldin bada salaketa publikoa egin unean bertan, ondoren salaketa idatziz egiteko.
- ✓ Era berean, batzarretako beste partaide euskaldunei euren parte hartzea euskaraz egin dezaten aldarrikatuko diegu, erdarara joz gero euren jarreraz kexatuz.

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKAL HERRIKO ERAKUNDE PUBLIKO OROTAKO LAN HIZKUNTZA EUSKARA IZAN DADIN.

zer egin?

- ✓ Edozein erakunde publikotako langilea izanik gure ahaleginak egunerokotasunean euskaraz bizi izan behar du. Une oro euskara erabiliz, ingurunean dauden langile euskaldunekin euskaraz mintzatuz eta hauek ere une oro euskara erabili dezaten animatuz eta euskara ezagutzen ez duten langileak euskara ikas dezaten eraginez.
- ✓ Ahalegin honetan ere sindikatuak inplikatu behar dira. Eurak ere beraien funtzionamenduan neurriak har ditzaten (idazkiak egiterakoan, langileengana zuzentzerakoan...) eta euskararen normalizazioan eragile aktiboak izan daitezten.
- ✓ Honekin batera ere, administrazioko agintariak euskara lan hizkuntza bihurtu dadin baliabide nahikorik eskaintzen dituzten aztertu behar dugu. Besteak beste euskara ikasteko laguntza ekonomikoak eta ordutegi malgutasuna, erabilera normalizatzeko planak eta abar.
- ✓ Nahikoak baldin badira eurak erabiliz eta ingurunean lankideak baliabide horietaz baliatu daitezten animatuz.
- ✓ Nahikoak ez badira baliabide horien falta edo eskasia salatuko dugu erreklamazio orrien bidez eta agintariak zuzenean interpelatuz, salaketa honetan beste lankideak eta sindikatuak inplikatuko ditugularik.

>> ESKUBIDEA DUGU AUZIPERATZE PROZESUAK EUSKARAZ IZAN DAITEZEN, BAITA EPAIKETAK ERE, EPAILE, ABOKATU, FISKAL ETA IDAZKARI JUDIZIAL EUSKALDUNEKIN.

zer egin?

- ✓ Edozein auziperatze prozesutan jasotzen ditugun idazki guztiak euskaraz izatea exijituko dugu, jasotzen ditugunak erdaraz baldin badaude atzera bidali eta euskaraz bidaltzea eskatuz. Era berean sinatu beharreko edozein idazki euskaraz egotea exijituko dugu.
- ✓ Abokatua aukeratzekoan euskalduna aukeratu, baita ofiziozkoa denean ere. Hasieratik epaitegian egin beharreko gestio guztiak euskaraz egin nahi dituzula jakinarazi iezaiozu.
- ✓ Epaketetan euskaraz deklaratu. Norberaren disposizioaren esku geratu epaiketa horretan itzultzailea onartzen den (hala balego) eta beraz epaketak aurrera egiten uztea (itzultzailea erabili beharra beti ere salatuz) ala itzultzailea onartu ez eta gatazka eragiten den epaketan (epaiketa gela utziz, epaiketa moztuz...). Jarrera honek ez du zigor gehiturik ekartzen.
- ✓ Toki batzuetan legeak eskubide hau onartzen du, beraz eskubide hau bete arazi behar du. Kasu hauetan desobedientzia jarrera hau hartzeak ez dakar epaitua zaren horrekiko eraginik. Hau da, ez duzu horregatik zigor gehiturik jasoko.
- ✓ Legeak onartzen ez digun tokietan norberaren esku geratu zein jarrerarekin jarraitu. Baina edozein kasutan ere gure eskubideen edozein urraketa gertatzen bada salaketa egin (erreklamazio orri bat bete...).
- ✓ Haurren izena erregistratzerakoan edo epaitegitik ezkontzean ere, euskaraz burutu dadin ahalegina egin ezazu. “Haurra euskaraz erregistratu dut” edo “euskaraz ezkondu naiz” esatea gaur ez da erraza.
- ✓ Honekin batera ere, justizia administrazioarekin euskara erabiltzeagatik arazoak izan dituztenen zerrenda biltzen duen “Euskaldunoi Justizia Zor Zaigu” zerrendan izena eman. Zerrenda honen helburua arazoa izaten ari diren kasu horiek guztiak biltzea eta justizia administrazioan euskaldunok pairatzen dugun hizkuntza eskubideen urraketaren dimentsioa agerraraztea da. Zerrendan sartzeko jo EHEren edozein egoitzara edo edozein kiderengana.

>> ESKUBIDEA DUGU OSASUN ZERBITZUAK EUSKARAZ JASOTZEKO.

zer egin?

- ✓ Edozein zerbitzura jotzen dugunean euskaraz egingo dugu, baita erantzun berbera eskatu, hau da, harrerako langilea, medikua edo erizaina euskaldunak izatea.
- ✓ Horrela ez bada medikuz edo erizainez aldatu. Eskubide hau bermatzen ez bada salaketa sartu. Horretarako osasun zentro edo ospitaletan erreklamazio orriak izango dituzu.
- ✓ Honekin batera ere bidali edo ematen diguten edozein idazki, froga mediku edo hitzordua esateko orria euskaraz eskatuko dugu.
- ✓ Pediatra erdalduna bada, ikastolan edo gurasoekin edo parkean gaia atera eta jende gehiagorekin aldaketa eman dadin presio zabalagoa bultzatu.
- ✓ Toki batzuetan legeak eskubide hauek onartzen ditu, beraz eskubide hauek bete arazi behar dituzte. Lege arrazoia zurea da kasu hauetan. Gainera, muturreraino eraman nahi izanez gero, gaixotasun arin bat duzunean sendagile erdalduna ukatu eta pribatura jo. Ostean gastuak administrazioari eskatu, epaitegian salaketa jarritz.
- ✓ Legeak onartzen ez digun tokietan norberaren esku geratuko da zein jarrerarekin jarraitu. Baina edozein kasutan ere gure eskubideen edozein urraketa gertatzen bada salaketa egin (erreklamazio orri bat bete...).

HEZKUNTZARI DAGOKIONEZ

>> ESKUBIDEA DUGU HEZKUNTZA SISTEMAK EUSKARAREN TRANSMISIOA BERMA DEZAN.

zer egin?

- ✓ Gurasoa izanik eskubide honen aldarrikapena egin ikastetxera jotzean. Era berean seme-alaba matrikulatzerakoan eskubide hau ziurtatzen digun ikastetxean eta ereduan egin. Herrian edo ingurunean eskubide hau bermatzen ez bada salatu eta salaketa honetan beste gurasoak kontzientziatu eta inplikatzeko ahalegina egin (bertako ikastetxeko arduradunei kexa luzatu, hezkuntza saila salatu...).
- ✓ Honekin batera eskubide honen gauzapena lortzea helburu duen “eskolak euskaldundu behar du” aldarrikapenarekin bat egin eta hau lortzea helburu duten ekimenetan parte hartu.

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKARAZ IKASTEKO, IKASKETA ETA PRESTAKUNTZA MAILA GUZTIETAN (HAUR, LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA, LANBIDE HEZIKETA, IKASKETA UNIBERTSITARIOAK ETA IKERKETA MAILA), INOLAKO MURRIZKETARIK GABE.

zer egin?

- ✓ Eskubide hau bermatzen den aukera apurretan seme-alabak matrikulatu edo guk geuk matrikulatu, euskarazko lerro, modulu edo adarretan.
- ✓ Ingurunean, familiartean edo lagunartean, gauza bera egitera animatu.
- ✓ Aukerarik ez dagoen tokietan edo ikasketetan salaketa egin, bai ikastetxeko arduradunak bai hezkuntza saileko arduradunak eta eskubide honen aldarrikapen mugimendu ezberdinekin bat egin.
- ✓ Ikaslea bazara eta ikasten duzun lekuan eskubidea bermatzen ez badizute, ikasle euskaldunekin bildu eta zerbait egiteko mugitu.

- ✓ Irakaslea bazara, ikastetxe barnean gaia atera eta eztabaida piztu, euskaraz ikasteko eskubidea berma dadin neurriak bultzatuz.

ALOR SOZIOEKONOMIKOARI DAGOKIONEZ

>> ESKUBIDEA DUGU MERKATAL ZEIN KONTSUMITZAILE JARDUERA ORO EUSKARAZ EGIN AHAL IZATEKO, EUSKARAREN ERABILPENAREKIKO INOLAKO MURRIZKETARIK GABE, HALA NOLA ONDASUN ETA ZERBITZUEN SALEROSKETA, BANKU-ERAGIKETA, ASEGURU, LAN-KONTRATU ETA GAINERAKOAK, ETA HALABER JARDUKETA HORIEK BURUTZEKO BEHAR DIREN AGIRIAK EUSKARAZ ESKURA IZATEKO.

zer egin?

- ✓ Jarduera hauek egiterakoan lehenengo ahalegina euskaraz egitea izango da, euskaraz egitea ahalbidetzen duten denda, zerbitzu, banku eta aseguru etxeak bilatuz.
- ✓ Aukerarik ez dagoen tokietan gure lehenengo hitza euskaraz izango da, ezezkoaren aurrean salaketa eginez bai bertan idatziz (erreklamazio orria) bai ondoren (Behatokia, bide judiziala aukera dagoen tokietan...).
- ✓ Ahal den heinean eta kasuaren arabera inguruko eragileak inplika arazi (sindikatuak lan-kontratuetan...). Sindikatu batetako kide bazara barnetik eragin ezazu aldaketa hauek bultza daitezen.

>> ESKUBIDEA DUGU KONTSUMITZAILE GISAKO INFORMAZIO ETA PUBLIZITATE ORO EUSKARAZ JASOTZEKO (ERROTULUAK, ETIKETAK, DOKUMENTAZIOA)

zer egin?

- ✓ Ahal dela euskarazko informazioa edo publizitatea eskaintzen duen zerbitzua aukeratu.
- ✓ Beste aukerarik ez baldin badago erdarazkoengana joko dugu baina euren jarrera salatuz (erreklamazio orria, Behatokia...).
- ✓ Publizitatea jasotzen duzunean bidali dizunari itzuli, euskaraz eskatuz. Era berean, telefono dei bat ere egin dezakezu eta arduradunarekin kontsumitzaile moduan hitz egin, zure haserrea agertuz.
- ✓ Honelako kasuetan ere Kontsumitzaileen Elkartera jo dezakezu. Euskal Herriko kontsumitzaile gisa zure eskubideak urratuak izan baitira.
- ✓ Etiketak euskaraz ez badaude erosi duzun lekuko arduradunari kexa adierazi iezaiozu. Bestela ere, produktu ekoizleari gutun bat bideratu, euskaldun gisa produktu etiketatuak euskaraz jasotzeko eskubidea duzula agertuz.
- ✓ Errotulazioa erdarazkoa bada, ezabatu dezakezu. Errotulagailua edo bestelako euskarrien bidez. Salaketa eraginkorra izan daiteke.

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKAL HERRIAN MERKATURATZEN DIREN INFORMATIKAKO SOFTWAREAK ETA, ERABILERA IKUS-ENTZUNEZKOA EDO INTERAKTIBOA DUTEN PRODUKTUAK EUSKARAZ MERKATURATU DAITEZEN.

zer egin?

- ✓ Ahal dela euskarazko produktuak aukeratu.
- ✓ Beste aukerarik ez baldin badago erdarazkoengana joko dugu baina euren jarrera salatuz (erreklamazio orria, Behatokia...).

- ✓ Internet-en izan ditzakezun harremanetan zure kexa zabaldu. Euskaldun gisara produktuak erdaraz jaso dituzulako. Eztabaidak piztu web guneetan.

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKARAZ LAN EGITEKO.

zer egin?

- ✓ Eguneroko lan-jardunean euskaraz hitz egin, inguruneko lankideak jarrera hau hartzera animatuz.
- ✓ Lan-inguruneak hau bermatze ez badu konpontzeko neurriak exijitu (euskalduntzeko ikastaroak, lantegirako euskara normalkuntza planak...), aldarrikapen honetan lankideak, sindikatuak eta lantegiko jabeak inplikatu.
- ✓ Arazorik edo ukaziorik jasoz gero salaketa egin.
- ✓ Enpresaren euskalduntzea bultzatu eta horretarako eragile aktiboa izan. Enpresaria edo langilea izan, zure papera oso garrantzitsua izango da helburu horri begira.

KULTURARI ETA HEDABIDEEI DAGOKIONEZ

>> ESKUBIDEA DUGU INFORMAZIOA EUSKARAZ JASOTZEKO.

zer egin?

- ✓ Euskarazko informazio iturriak aukeratu. Euskarazko produktua kontsumitu.
- ✓ Euskaltzaleak izanik ere euskaraz egiten ez dutenak salatu.
- ✓ Euskara baztertzen dituzten hedabideak ez kontsumitu. Hainbatetan zaila da (telebista), baina ahalegin horri eutsi irрати

eta egunkariei dagokienez. Era berean, horietan zure kexa agertu. (gutun bidez...)

- ✓ Euskarazko hedabideak bultzatu eta lagundu, bai ekonomikoki, zabalpenean, jendea kontsumitzera animatuz...
- ✓ Erdarazko irrati edo telebista saioetara zuzenean sartzeko ahalegina egin, programan parte hartzeko nahia agertuz. Behin hau lortuta euskaraz mintzatu, ezer pasatuko ez balitza bezala. Egokiena, grabatzea litzateke. Euskaraz mintzaten ez balizute utziko, grabazio hori Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren esku jarri.
- ✓ Erdarazko aldizkariak (denbora librekoak, txirrindularitza, motorra, moda, naturari buruzkoak, sexuari lotutakoak...) irakurtzen badituzu, irakurle gisa arduradunei gutun bat bidali edo nolabait zure kexa adierazi.

>> ESKUBIDEA DUGU HEDABIDE PUBLIKOETAKO LAN HIZKUNTZA EUSKARA IZAN DADIN.

zer egin?

- ✓ Hauetako hedabide batetan lan egiten baduzu, euskara lan hizkuntza izan dadin eragin, erabilpena maila guztietan sustatuz. Bai ahozko harremanetan, idatzizkoetan, antolaketari dagokionez.
- ✓ Langileak bildu eta euskara lan hizkuntza izan dadin proposamenak landu.

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKAL HERRIAN SARBIDEA DUEN HEDABIDE OROK EUSKARAREN PRESENTZIA BERMA DEZAN.

zer egin?

- ✓ Hedabide horiek euskararen presentzia ez badute bermatzen, ahal duzun neurrian salaketa bideratu. Hedabide horretara irakurle, ikusle edo entzule gisa gutun bat bidaliz, e-mail bat edo telefono dei bat eginez.

>> ESKUBIDEA DUGU EUSKARAK TOKI NAGUSIA HAR DEZAN GIZARTE-KULTURA ETA AISIARAKO GERTAKARI ETA ZERBITZUETAN.

zer egin?

- ✓ Euskarazko gertakari eta zerbitzuak aukeratu.
- ✓ Gertakari edo zerbitzu horietan euskara baztertua edo ukatua baldin badago salaketa egin.
- ✓ Gertakari eta zerbitzu hauek antolatu edo eskaintzen dituzten arduradunengana jo eskubide hau errespetatu eta euskararen presentzia egokia bermatu dezaten. Are gehiago hauek administrazio publikoak direnean.
- ✓ Egoerak bere horretan jarraituz gero salaketa egin.

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETAK SALATZEKO. Edozein eremu, lurralde, herri, esparru edo sailean hizkuntzarekiko dituzun eskubideak urratuak izan badira, elkarte hauetara jo dezakezu:

>> Hizkuntza Eskubideen BEHATOKIA.

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak sorturiko tresna, hizkuntza eskubideei buruzko lana egiten duen erakundea. EUSKARAREN TELEFONOA abian jarri zuen eta urtero herritarren eskutik jasotzen dituen salaketekin eta landutako informeeekin txostena osatzen du. EUSKARAREN TELEFONOAn salaketa jarriz, hizkuntza eskubideak urratu dizkizunari salaketa hori jaso dela jakinarazi eta egoera hori gainditzeko eskea luzatzen dio.

Hizkuntza Eskubideen Behatokia: 948-146172. **www.behatokia.org**
Euskararen Telefonoa: 902194332.

>> Euskal Herrian Euskaraz.

Euskararen defentsarako herri mugimendua. Euskal Herria euskalduna helburu, herritarren aktibazioa, kontzientziazioa eta mugimendua bultzatzen duen erakundea.

Euskal Herrian Euskaraz: **ehe.euskalherria.org**

Bizkaia: 94-4162730.

Gipuzkoa: 943-303527.

Nafarroa Garaia: 948-204198.